



**Bake**  
prozesua  
indartzeko  
**Foro**  
Soziala

**Foro**  
Social  
para impulsar  
el proceso  
**de Paz**

**Forum**  
Social  
pour impulser  
le processus  
**de paix**  
**Social Forum**  
to promote the Peace process

# Bizikidetza demokratikoa eraikitzeke konpromiso soziala

Foro Sozial Iraunkorra 2020ko urria



## Bizikidetza

demokratikoa eraikitzeke konpromiso soziala  
Compromiso social con la construcción de la convivencia



## 1. Bizikidetzaren printzipio gisa

Gizarte ororen legegietan modu zabalean onartu eta legitimatzeko moduko lehentasuneko zerbait badago, hori giza eskubideen, eskubide zibilen eta sozialen urraketak eragindako sufrimendua saihestearen aldeko akordioa da.

Hori horrela izanik, bizikidetzak beharko luke izan izan gizarte ororentzat lehentasun politikoa. Hau da, pertsona guztien eskubide guztiak errespetatzea, eta desadostasuna gainditzeko elkarriketa baliatzea.

Foro Sozial Iraunkorrak erronka horri ekarpena egin nahi dio “Bizikidetzaren demokratikoa eraikitzearen konpromiso sozial” izendatu dugun proposamen honen bidez.

## 2. Foro Sozial Iraunkorrari buruz

Foro Sozial Iraunkorra EAEko eta Nafarroako gizarte zibileko 17 erakundek<sup>1</sup> osatutako eragile dinamizatzailea da, eta bizikidetzaren demokratikoaren eraikuntzan ekarpena egitea du helburu. 2016an sortu zenetik indarkeria zikloaren ondorioetariko batzuk ebazten lagundu izan du.

Horretarako, errealitatea aztertu du kontaktuak eginez; hitzaldiak antolatu ditu; eragile anitzen arteko adostasunak eta desadostasunak identifikatzen saiatu da; eta irtenbide posibleak proposatu ditu, alderdi guztiak aintzat hartu eta konprometituko dituen ikuspegi inklusibo batetik.

Egindako lanaren ondorioa argia izan da: gizarte zibilak ekarpen esanguratsua egin diezaioke (eta egin behar dio) sufrimenduaren amaierari eta, beraz, bizikidetzari berari, indarkeria zikloaren ondorioak konpontzea erraztuz. Gure ustean, horrelako prozesu baten testuinguruan, ez errepikapenerako berme garrantzitsuena da jendartearen protagonismoa.

1. ELA, LAB, CCOO, Steilas, ESK, Ahotsak, Bake Bidea, Baketik, Gernika Batzordea, Sare, Etxerat, Paz con Dignidad, Bilgune Feminista, Herri Eliza, Antxeta Irratia, Hitz&Hitz eta Egia Zor.



### 3. Bizikidetza demokratikoa eraikitze erroka

ETAren armagabetze zibila eta desegitea gertatu eta gero, biktima guztien eskubideak aitortzeko bidean emandako pausoen ostean, eta salbuespenezko espertxe politikaren amaierararantz egindako aurrerapen apalen ondoren, uste dugu euskal jendarteak, oro har, bizikidetza demokratikoa eraikitze konpromisoa bere egin behar duela.

Hori posible izango da, gure ikuspuntutik, euskal gizartea osatzen dugun pertsona guztiok dagozkigun eskubideen jabe garela bermatuz: eskubide zibil, politiko eta sozialak. Edo, bestela esanda: eskubide guztiak pertsona guztientzat.

Gure ustez, Foro Sozial Iraunkorra osatzen duten zenbait erakundek eskubide sozialen esparruan lan egiten badute ere, gure esku hartze kolektiboaren eremua indarkeriaren osteko bizikidetza demokratikoan oinarritzen da, eskubide zibil eta/edo politikoen eremuari gehiago dagokiona.



Alde horretatik, aditzera eman nahi dugu uste dugula Espainiako eta Frantziako gobernuek urrats batzuk eman ditzaketela eta eman beharko lituzketela bizikidetzaren demokratikoaren eraikuntzari ekarpena egiteko, hala nola, biktimen arteko diskriminazioarekin amaitzea, espetxe politikaren aldaketa, eragindako mina aitortzea, edo XXI. mendera egokitutako oinarri demokratiko berriak ezartzea. Zilegi da, noski, eztabaida horiek mahaigaineratzea, eta baita horietatik ondorioztatuta daitezkeen iritzi eta kriterioak ere.

Hala eta guztiz ere, Foro Sozial Iraunkorrean uste dugu elkarbizitzarako bidea egiten lehen baino lehen hasi behar dugula eta Euskal Herriko demokrazian sakondu behar dugula, horren oinarriak eraikitzeari ekinaz gaurtik bertatik.

Erronka horri aurre egiteko modua honako hau da gure ustetan: **eztabaida prozesu kolektibo eta parte hartzailea** aktibatu nahi dugu, hainbat gairi buruzko hausnarketa sakona egiteko:

- Pertsona eta kolektibo bakoitzak bizikidetzaren demokratikotzat zer ulertzen duen;



- Askatu beharreko korapiloak eta pertsona guztiei eskubide guztiak (zibilak, politikoak) bermatzea eragozten duten elementu nahasgarriak zein ote diren;
- Egoera desblokeatzera eraman gaitzaketen gutxieneko adostasun edo akordioei buruz hausnartzea;
- Indarkeria, enpatia, mina, duintasuna, errespetua, berdintasuna... bezalako kontzeptuen inguruan hausnartzea.
- Gogoeta egitea nola aurre egin iraganaren ondareari, indarkeria zikloak utzi dituen giza ondorio larriei, etorkizuneko belaunaldiak ez daitezen egon haren eraginpean, ezta haren ondorioen menpe ere.

Hortaz, bizikidetzaren eraikuntzak duen konplexutasuna ikusarazi eta esplizitatu nahi dugu, baita elkarbizi diren ikuspuntu desberdinak ere (sarritan bateraezinak diruditenak), gure gizarteko sektore sozial guztietara iristen saiatzeko. Bizikidetza demokratikoa eraikitzea euskal gizarte osoaren, herritarren, erakundeen eta gizarte eragileen helburua izatea nahi dugu.

Foro Sozial Iraunkorrak bere buruari jarritako erronka honakoa da: gure egungo



josturak gainditzen saiatzea eta eragile sozial berriekin gure diagnostikoa eta gure gogoeta partekatzea, guztiok bizikidetzaren eraikitzeko ekarpenak egitearen eta harekin konprometitzearen garrantziaz jaketu eta konpromisoa gure egiteko.

Gure gain hartzen dugu eginkizun hau, dinamizatzailerik eta erraztaile izateko lana dagokigulako, eta jakinda azken helburua dela guztiok (erakundeak, alderdi politikoak, sindikatuak, eragile sozialak eta kulturalak, herritar oro...) interpelatuta sentitzea eta konprometitzea bizikidetzaren demokratikoa eraikitzeko.





## 4. Foro Sozial Iraunkorraren diagnostikoa

Gure ustez, bizikidetzaren demokratikoaren eraikuntza posible izan dadin, euskal jendartea osatzen dugun pertsona guztiok dagozkigun eskubide zibil eta politikoen jabe izan gaitezen, hiru korapilo askatu behar dira ahalik eta lasterren:

1. Indarkeria-adierazpen guztien biktimak guztiei egitarako, aitortza ofizialerako, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidea bermatzea, gaur egun dagoen diskriminazio egoera gaindituz.
2. Presoen, iheslarien eta deportatuen auzia behin betiko konpontzea, salbuespenezko espetxe politika desaktibatuz.
3. Memoria kritiko inklusiboa eraikitzen hastea, bizi izan duguna ahaztu edo saihestu gabe, eta giza eskubideen eta bakearen kulturaren oinarritutako etorkizuna eraikitzea ahalbidetuko digun "kontakizunaren borroka" deritzona gainditzeko baldintzak sortzea.



Lehen bi korapiloei aurre egiteko orduan, adostasun zabalak dagoeneko badaude bai euskal gizartean, bai eragile politiko, sozial, sindikal eta erakundeen artean.

Hala ere, ez da gauza bera gertatzen memoriari eta kontakizunari dagokienez, ezta horien zereginari dagokionez ere. "Kontakizunaren borroka" etengabekoa da, argudio errepikakorren noria amaigabea, eta horrek eragin dezake gizarteak gai horiekin modu arriskutsuan distantzia hartzea, zailduaz lortu nahi dugun bizikidetzaren eraikuntzarekiko konpromisoa.

Memoriarena eremu delikatua dela jakin badakigu indarkeriazko egoera edo gatazka bat gainditzetik datorren edozein lekurentzat. Gure kasuan, berezko ezau-garriak izan dituen indarkeria ziklo batekin, oso gai sentikorra da, bizipenez eta esperientziez betetakoa, eta bizipen eta esperientzia horiek bakarrik dira horiek bizitzen, gordetzen eta transmititzen dituen pertsona bakoitzarentzat. Egiazkoa da gertatu ziren gauzak direlako, eta ukiezina da sufrimendua eta oroimena pertsona bakoitzaren barru-barruan daudelako, hitza, oroitzapena, amesgaiztoa edo itxaropena direlako.



Ildo horretan, eta elkarrekin eraikitze-ko prozesu honetan egonik, Foro Sozial Iraunkorrek dagoeneko funtsezko ekarpenak egin dizkie lehen bi gaiak IV. eta V. Foro Sozialen ondorioen bidez. Gure erantzukizunetik eta prozesu honetan zehar, ekarpen espezifiko bat egingo dugu memoria kritiko inklusiboaren gaian bereziki sakontzeko.

Bizikidetzaren demokratikoa eta bakea oinarri dituen etorkizuna eraiki nahi badugu, beharrezkoa da iragana eta jasandako sufrimendu guztia aitortzea; baina hori ez da nahikoa.

Foro Sozial Iraunkorrean uste dugu garaia iritsi dela iraganari eta etorkizunari buruzko adostasunak artikulatzeko, iraganeko izugarrikeriak zubi bilakatuaz etorkizunean halakorik berriro gertatuko ez dela bermatze aldera.

Horregatik, beharrezkoa da, halaber, berriro ez geratzeko bermeak ezartzea. Behetik gora, konpromiso sozial bat ezartzea, bermatuko duena herrialdearen inguruko ikuspegi desberdinak bakean eta demokratikoki elkarrekin bizi ahal izango direla, eta datozen belaunaldiei aukera



emango diena beren arteko desberdintasun logikoak modu baketsuan eta demokratikoan ebazteko.

Partaidetzazko eztabaida prozesu honetan ekarpena egite aldera, jarraian, bizikidetzaren demokratikoa eraikitzearen konpromiso horrek kontuan hartu beharko lituzkeen **gutxieneko edukietako** batzuk zerrendatuko ditugu:

- Egungo eta etorkizuneko bizikidetzaren erakunde demokratikoen eta gizarte osoaren erantzukizuna dela;
- Kontuan izan behar dela euskal jendartearen ezberdintasun ardatz anitzek zeharkatzen dutela (generoa, klasea, jatorria, arrazalizioa, adina, sexualitatea, egoera ekonomikoa, hezkuntza...), baina, aldi berean, esperientzia handia duela parte hartzeko moduei eta elkartasun sareei dagokienez, eta hori aitortu eta aprobetxatu egin behar dela;
- Ezinbestekoa dela eskubide guztiak errespetatuko dituen gizarte esparru baten aldeko konpromisoa hartzea;
- Horregatik, hain zuzen ere, inplikaturako alderdi guztiok, gure lan eremua edozein delarik ere, beti jar dezakegu-



la gure aldetik zerbait (nahiz eta begi hutsez agerikoa ez iruditu);

- Ezinbestekoa dela herrialdean gertatutako indarkeria zikloko biktima guztien mina aitortzea, biktima bakoitzak gertatutakoagatik izan dezakeen bidegabekeria sentimendua errespetatuz;
- Gure gizarteko sektoreetan oraindik dirauen sufrimenduarekin amaitu behar dugula, indarkeria ziklo luzearen eta bizi ditugun beste bizipen batzuen ondorioz, guztiak elkargurutzatuak;
- Gizarte gisa, biktima guztiak geure egin behar ditugula, inolako parekatze edo bereizkeriarik gabe guztiak lagunduz eta erreparatuz;
- Beharrezkoa dela eszenatoki berri bat bilatzea, biktimen mina errespetatuz, motibazio politikoagatik preso dauden edo ihes egin duten pertsonen existentziari behin betiko irtenbidea emateko, bai eta horiek gizartean berriintegratzeko ere;
- Iraganaren gaineko hainbat ikuspegi eta kontakizun onartzeko konpromisoa hartu behar dugula, edozein biktima motaren birbiktimizazioa eragin dezaketenen obra eta hitzetatik armagabetuz;
- Ezinbestekoa dela gizon eta emakume guztion konpromisoa, bazterketarik



gabe, giza eskubide guztiak, zibilak eta politikoak errespetatuko dituen gizarte esparru batekin;

- Gure lurraldean dauden herrialde ikuspegi ezberdinak errespetatu behar direla, eta horiek egingarriak izatea bermatu behar dela, betiere errespetutik, elkarrizketatik eta inklusiotik eta bide baketsu eta demokratikotatik.

Hori guztia, etorkizuneko belaunaldiak biktima izan garen eta, aldi berean, erantzule izan garen konpondu gabeko kargetatik libre bizitzeko duten eskubidean sinesten dugulako. Azken batean, dagozkien eskubideen jabe izan daitezten.



## 5. Abian jarriko ditugun ekimenak

Arestian deskribatutako hausnarketa prozesua aktibatzen asmoz, hurrengo hilabeteetan lan ildo berriak jarriko ditugu abian, eztabaidarako, entzuteko eta hausnartzeko espazioak sortzeko, eta prozesu honetan bidelagun ditugun erakundeek eta pertsonak, banaka zein taldeka, beren ekarpenak egin ditzaten, partekatuz beren ikuspegiak, perspektiba eta esperientzia:

- Bizikidetzaren demokratikoa ulertzeko moduei buruzko eztabaida irekiak, orain arte harremanetan egon ezin izan garen gizarte sektoreen ekarpenak eta ikuspegiak jasotzeko.
- Euskal gizarte zibileko elkarte, fundazio eta erakundeekin bilera publikoak, Foro Sozial Iraunkorraren lana aurkezteko, ekarpenak jasotzeko eta, hala badagokio, elkarrekin jorratzeko ekimenak adosteko.
- Erreferentzia diren pertsona ospetsuen ekarpenak jasotzea, maila publikoan zein pribatuan, etorkizuneko bizikidetzaren eraikitzeko beharrezko urratsei buruz.



- Postontzi publiko bat abian jartzea, edonork bere ikuspegia, proposamenak eta etorkizuneko bizikidetza eraikitzeko prozesuari buruzko kritikak partekatzeko.
- Euskal gizarteko pertsona publiko ospetsuen iritziak jasotzea, bizikidetza eraikitzeko dauden erronkei buruz zer ikuspuntu duten ezagutzeko.
- Eztabaida, ideiak partekatzea eta egingadako lana ikusaraztea helburu duten konferentzia publikoak antolatzea.
- Eta dinamikatik bertatik sortu eta abian jarri daitezkeen bestelako ekimenak.

Foro Sozial Iraunkorrek konpromisoa hartzen du eztabaida prozesu hori garatu eta errazteko, ekarpen pribatuak eta kolektiboak jasoz. Datorren urteko maiatzaren 16ra arte, "Bizikidetza Baketsuaren Nazioarteko Egunera" arte, hain zuzen ere. Orduan aurkeztuko ditugu ondoriook.

**Ekarpenak egin nahi badituzu, [info@forosoziala.eus](mailto:info@forosoziala.eus) helbidera bidali ditzakezu.**

